



SALTOKIETAN, OSTALARITZAN ETA HIRIKO ZERBITZUETAN IKT-AK INPLEMENTATZEKO LAGUNTZA PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK: DENDATICS, DONOSTIAKO EKONOMIA BULTZATZEKO DONOSTIA UP! 2018 PLANA

ATARIKOA

Donostiako Sustapenak, Donostiako Udalean garapen sozioekonomiko iraunkorreko eredu bat planifikatzen eta garatzen duen heinean, printzipio eragile hauen aldeko apustuan gehiago sakondu nahi du: IRAUNKORTASUNA, BERRIKUNTZA-DIGITALIZAZIOA ETA SAREKO LANA. Helburua, oro har, tokiko enpresen, eta bereziki, saltokien lehiakortasuna hobetzea da.

Azken urte hauetan Donostiako Sustapenak eta Donostiako Udalak zenbait urteko plan egin dituzte hiriaren garapen ekonomikoa bultzatzeko. Plan horietan, enpleguarekin eta enpresa-lehiakortasunarekin, giza kapitalaren garapenarekin, diseinuarekin eta sormenarekin lotutako programak bateratu dira.

Plan horien barruan, duela hiru urte Laguntza programa hau sortu zen, bertako merkataritzan teknologia berriak garatzeko eta inplementatzeko laguntzak direnak, toki jarduerarako negozio-aukera berriak sortzeko gai den tresna gisa.

Bi edizio hauetan bertako berrehun enpresak baino gehiagok eskuratu dituzte laguntza horiek beren negozioetan zenbait soluzio teknologiko erabiliz: e-commerce, kudeaketa-sistemak ezartzea, marketin digitaleko kanpainak abian jartzea eta abar. Bi urte hauetan lortutako esperientziak argi erakusten du informazioaren eta komunikazioaren teknologien alde dagoen joera, eta enpresa eta saltoki txiki horiek transformazio digitaleko prozesuei ekin behar dietela beren negozioetan.

Egia da gaur egun inork ez duela zalantzan jartzen berrikuntza eta teknologia elkarrekin daudela, eta teknologia hain zuzen ez dela aukera bat, enpresen behar bat da.

Hala ere, jarduera ekonomikoaren transformazio digitalak, hirian kudeaketa-eredu berriak sustatzen dituen lurraldearen aldaketa digitala ere ekartzen duela. Horregatik guztiagatik, Donostiako Sustapenak hiriko merkataritzaren digitalizazioaren alde egiten jarraitzen du, eta aurrerapauso bat eman du digitalizazio-prozesuak eta diseinua, sormena eta kudeaketa konbinatuz.



Donostia/San Sebastián UP! 2018 Garapen Ekonomikorako Plan berriaren sustrai eta aurrekariak aurretik egindako Ekonomiaren Sustapen Planetan oinarritzen dira. Bestalde, enpresa, pertsona eta erakundeen zerbitzura jarritako zenbait baliabide eta ekintza partekatzen ditu haiekin, lankidetzan publiko eta pribatuaren bidez. Esparru horretan, enpresa txikien eta tokiko saltokien transformazio teknologiko eta digitalerako bideratutako laguntza-lerroa barne hartzen da, Tokiko Merkataritzaren Digitalizazio Plan bat abian jartzeko tresna gisa.

DENDATICS laguntza-programa honek hiriko enpresa eta saltokien transformazio digitaleko prozesuetan laguntzen du, haien lehiakortasuna hobetzeko. Horretarako, beraien ohiko jardueran IKTak erabiltzen dituzte, helburu hauekin: merkataritza-jardueretan laguntzeko eta teknologikoki modernizatzeko; teknologia berrien erabilera hobetzeko; zerbitzuaren kalitatea handitzeko; bezeroarekiko esperientzia eta enpresa-kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko.

Dendatic laguntzen bidez, enpresa-kultura bat garatzeaz gain, sektoreko lankidetzan prozesuak ere sustatu egingo dira, haien lehiakortasun maila handitzeko helburuarekin.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN XEDEA

Laguntza hauen helburua Donostiako saltokien lehiakortasuna hobetzen laguntzea da, merkataritzan, ostalaritzan eta hiriko zerbitzuetan tresna digitalak erabiliz.

Horretarako, DENDATICS laguntza ekonomikoak eskaintzen dira, kanpoko hornitzaileek IKT soluzioak ezar ditzaten hiriko saltokietan.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapena SAK 110.000 euro bideratzen ditu laguntza horietarako.

Dena den, Donostiako Sustapenak hala erabakiko balu, kopuru hori aldatu ahalko du.



3. ARTIKULUA. ONURADUNAK.

Laguntzaren onuradun izango da laguntza ematea oinarri hartutako jarduera burutuko duena, edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, beti ere Oinarri hauetako baldintzak, eta, berariaz, laguntza mota bakoitzeko baldintzak betetzen baditu.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, nazionalak edo atzerritarrak, eta baita aurreko izaerarik ez duten taldeak ere, Oinarri hauetan ezarritako baldintzetan lehiatzen direnetan, araudi juridikoari jarraituz egoki osatu baldin badira. Ondare-sozietateak kanpo geratuko dira, urtarrilaren 17ko 2/2014 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauko 14. artikuluan definitu direnak.

Oinarri hauetan laguntzak eskatzeko beharrezko baldintzak zehaztuko dira, eta baita baldintza horiek ziurtatzeko modua ere. Edozein kasutan, Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da (hemendik aurrera DLLO), ondorio hauetarako aplikatuko dena.

Indarrean dauden xedapenek ezarritako Gizarte Segurantzarekiko betebeharren eta zerga betebeharren betetzea egunean ez duten pertsona fisiko edo juridikoei ezingo zaie dirulaguntzarik eman.

Diru-laguntzak edo laguntzak jasotzeko aukeraren galera ebazpen tinko baten bidez zigortu zaien pertsona fisiko edo juridikoei ezingo zaio diru-laguntzarik eman, ezta hartarako ezgaituak izan diren debeku legalen baten mende dauden pertsoneri ere, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Gizon eta Emakumezkoen berdintasunarena, azken seigarren xedapenean jasotzen den sexu arrazoiengatik egindako bazterketak burutu izanagatik zigortuak izan direnak barne.

Donostiako Udaletxearekin edota Donostiako Sustapenarekin zorren bat duten pertsona fisiko edo juridikoei ere ezingo zaie diru-laguntzarik eman.

Aurrez emandako laguntzen itzultze oso edo partziala burutzeke daukaten pertsona fisiko edo juridikoei ere ezingo zaie diru-laguntza eman, itzuli beharreko kopurua ordaindu izana ziurtatu ez badute.



4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK.

Hauek dira deialdia parte hartuko duten onuradunek bete beharreko baldintzak:

- Diruz lagundutako jarduera edo inbertsioa Donostian kokatua egotea.
- Oinarri hauek argitaratzen direnerako gutxienez urtebete Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta egonda egotea.
- Pertsona juridikoak badira, baldintza hauek betetzea:
 1. Bere aktiboek ezingo dute 10 milioi euro baino gehiagokoa izan, edo, operazioen bolumenari erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoan definitzen den bezala, ezingo dituzte 10 milioi euroak gainditu.
 2. Batez beste ezingo dituzte 50 langile baino gehiago izan. Langileen batezbestekoa kalkulatzeko, urteko lanaldi osoko langileak hartuko dira kontutan. Lanaldi partziala duten langileen kasuan, lan egindako orduen proportzioan zenbatuko dira.
 3. Aurreko 1 eta 2. puntuetan aurreikusitako baldintzetako bat betetzen ez duten enpresen aldetik %25 edo gehiagoan zuzen edo zeharka parte hartuak ez egotea.

Entitatea sozietate-talde baten parte denean, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluekin bat etorriz, aurreko 1 eta 2. zenbakietan adierazitako tamainak talde horretako partaide diren entitate guztiei egingo die erreferentzia.

Aktibo osoa eta lanen bolumena zenbatzeko helburuetarako, Merkataritzako Kodeko 46. artikuluan eta berau garatzeko arauetan aurreikusitakoarekin bat datozen ezabaketak hartuko dira kontuan.

Adierazitakoa gorabehera, ezin dira onuradun izan:

- Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta fundazioak.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
- Sektore publikoko erakundeak, (halakotzat hartzen dira sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan barne hartzen diren erakundeak. Lege horren bidez, Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora aldatu egiten dira) fundazioek eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak, ondare-sozietateak edota elkargo profesionalak % 25 baino gehiagoko partaidetza duten erakundeak.



5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Laguntza hauek toki erakundeen inbertsio teknologiko eta digitalei laguntzeko dira, betiere oinarri arautzaile hauetan jasotzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Erakunde eskatzaile batek gehienez 3.000 euroko laguntza jaso dezake. Diru-laguntza eskatzen duten inbertsioen % 80 finantzatu da, oro har, I. Taldean ezarritakoak izan ezik.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak hiru mailatan taldekatzen dira, eta bakoitzean gain hartutako gastuetarako laguntzaren zenbatekoak hauek dira:

- ◆ I. Taldea. Laguntza, gehienez, 1.500 eurokoa izan daiteke. Hau da talde honetan barne hartutako jardura:
 - ◆ Ekipamenduen erosketa, gehienez, 300 euro, eta enpresaren jarduerarekin lotutako softwarea erostea, gehienez, 400 euro.
 - ◆ Enpresaren web-orri berria edota egokitzapena, gehienez, 1.000 euro.
- ◆ II. Taldea. Gehienez, 2.500 eurokoa izan daiteke. Hau da talde honetan barne hartutako jardura:
 - ◆ Marketineko tresna digitalak.
 - ◆ Kudeaketarako software aurreratua (ordainketa- eta kudeaketa-sistemak...).
 - ◆ Online denda: e-commerce edo salmenta plataforma berria edota egokitua.
- ◆ III- Taldea. Gehienez, 3 eurokoa izan daiteke.
 - ◆ Soluzio eta tresna digitalen instalazioa: erakusleho birtualak, sentsoreak, eskanerrak, mikrofonoak, baliza geolokalizatuak, totemak.
 - ◆ Big data (datu prozesamendua: mezuak gizarte-sareetan, telefono mugikorreko seinalea, audio-fitxategiak, sentsoreak, irudi digitalak, inprimakien datuak, mezu elektronikoak, inkesten datuak, logotipoak...).
 - ◆ Aplikazio mugikorren garapena (errealitate handitua, birtuala, mistoa) eta mota bereko plataforma.

Laguntza-eskaerarekin batera erakunde eskatzailearen digitalizazioari buruzko galdera-sorta bat aurkeztuko da, Donostiako Sustapenak haren kokapen digitalaren berri izan dezan.

Diruz lagundutako jarduerak egiteko epea iragarkia GAO n argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2018ko abenduaren 31n amaitu.



Onuradun bakoitzari laguntza bat bakarrik emango zaio.

6. ARTIKULUA. LAGUNTZA JASOKO DUEN ZERBITZUA EMANGO DUTEN ERAKUNDEAK

Zerbitzuak ematen dituzten entitateek edo diru-laguntza helburu duten produktuak hornitzen dituzten entitateek irabazi-asmoko enpresa izan beharko dute. Enpresa horiek ezingo dute onuradunarekin loturarik izan, 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluan, urtarrilaren 17koan, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzkoan aurreikusten den bezala.

Honako hauek ezingo dira izan zerbitzuen mailegatzailleak edo produktuen hornitzaileak:

- Erakunde publikoak.
- Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
- Sektore publikoko erakundeek, (halakotzat hartzen dira sektore publikoko kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan barne hartzen diren erakundeak. Lege horren bidez, Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora aldatu egiten dira) fundazioek eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek, ondare-sozietateek edota elkargo profesionalek % 25 baino gehiagoko partaidetza duten erakundeak.

Edozein kasutan, eskainitako zerbitzuak (diruz lagunduko denak) bat etorri beharko du zerbitzua ematen duen enpresaren jarduera ekonomikoarekin, eta hala agertu beharko da bere Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN BATERAGARRIA IZATEA.

Laguntza hauek helburu berdinerako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekkin bateragarriak izango dira, edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribatutik datozela, bai nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoetakoak, beste diru-laguntzetako araudi erregulatzailleek ezar dezaketinari kalterik egin gabe, beti ere ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

- Oinarri hauetan ezarritako laguntzek Europar Batzordeko 1407/2013 Araudian (EB) ezarritako "minimis" arauak errespetatuko dituzte, 2013ko abenduaren 18koan, 2013ko abenduaren 24ean argitaratu zena Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, minimis laguntzen EBko Funtzionamendurako Tratatu 107 eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa.



- Oinarri hauetan ezarritakoarekin bat etorriz, jasotako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango da, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin elkartuta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

8. ARTIKULUA. AURKEZTU BEHARREKO ESKABIDEAK ETA AGIRIAK.

Eskabideak aurkezteko epea oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunetik abiatuta baliabide ekonomikoak agortu arte luzatuko da, oinarri hauetako 2. artikuluan zehazten denaren arabera (kasu horretan Donostiako Sustapenaren webgunean argitaratuko da) edo, bestela, 2018ko abenduaren 31n deialdia itxi arte.

Eskabideak Interneten edo zuzenean aurkeztu ahalko dira.

Eskaera presentzialak Donostiako Sustapeneko Informaziorako Zerbitzu Zentraletan aurkeztuko dira, Erregina Erregentea 8, Victoria Eugenia Antzokia, 20.003 Donostia helbidean, Donostiako Sustapeneko webgunean erreferentzia egiten zaion arreta publikorako ordutegia.

Eskabide presentzialak paperezko euskarrian aurkeztu beharko dira. Dokumentazio teknikoa euskarri digitalean ere aurkeztu beharko da (edo mezu elektronikoko bidez igorri fomentoss@donostia.eus helbidera).

Edozein informazio edo kontsultarako, 943.482.800 telefonoa edo fomentoss@donostia.eus helbidea daude eskuragarri, hurrengo erreferentzia aipatuta: Dendatics laguntzak.

Diru-laguntza hau jasotzeko interesa duten enpresa edo entitateek hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

Administrazioko dokumentazioa:

- Eskabide-orria ("Eskabidea" eranskina).
- Laguntza eskatzen duen pertsonaren edo entitatearen banku-datuen alta-fitxa, dagokion banku-entitateak sinatua ("Banku-datuak" eranskina).
- Pertsona fisikoa baldin bada, eskatzailearen NANaren kopia.
- Pertsona juridikoa baldin bada, eskatzailearen IFKaren kopia eta, bere kasuan, sinatzailearen NANA.



- Pertsona juridikoa baldin bada, eraketaren eskritura edo dokumentuak, Estatutuak edo fundazio-akta, non jarduna arautzen duten arauak agertuko diren, behar bezala inskribatuak, bere kasuan, dagokion Erregistro Publikoan, pertsona juridiko motaren arabera. Izaera juridiko propiorik ez duten Sozietate Zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigitaturiko kontratu pribatua erantsi beharko da.
- Eskaera sinatzen duen pertsona ez badator bat eraketaren eskrituran edo dokumentuan agertzen direnekin, jabetzearen eskritura publikoa ere aurkeztu beharko da, zeinaren bitartez pertsona horrek eskaera egiteko duen gaitasuna ziurtatuko den.
- Laguntza eskatzen duen enpresa eskatzaileak zerga-betebeharren betetzea egunean izatearen egiaztagiria.
- Laguntza eskatzen duen enpresa eskatzaileak Gizarte Segurantzako betebeharren betetzea egunean izatearen egiaztagiria.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako jarduera ekonomiko-historikoen dokumentu eguneratua, laguntza eskatzen duen pertsonarena.
- Donostiako Udaleko ziurtagiria, zeinaren bitartez laguntzaren eskatzaileak udalarekin inongo zorrik ez duela ziurtatuko den, edo, besterik ezean, berariazko baimena ("Eskabidea" eranskinean), Donostiako Sustapenak informazio hori zuzenean Donostiako Udaletik lor dezan.
- Zuzenean edota zearka bada ere, %25ekoa edota gorako bestelako enpresen partaidetza duten pertsona juridikoen kasuan, "Parte hartzailearen aitortpen Arduraduna" Eranskina.

Onuradunak egindako ardurazko deklarazio guztien egiazkotasunaren gaineko arduraren hartzen du, eta baita aurkezten den gainontzeko dokumentazioaren gainekoa ere bai.

Enpresak edo erakunde interesdunak eskabide honen aurretik 2017. edo 2018. urteetako deialdiko laguntzetara atal honetan jasotzen den dokumentazio osoa edo zati bat aurkeztu badu Donostiako Sustapenean, ez du berriro dokumentazio hori aurkeztu beharko. Dena den, dokumentazioak indarrean jarraitu beharko du, datuetan aldaketarik gertatu gabe.

Dokumentazio teknikoa:

- Merkataritza digitalizazioari buruzko galdera-sorta.
- Memoria deskribatzailea aurkeztea, laguntza jaso duen jarduera zehazki azalduz. Jarduera horren aurrekontu zehatza ere erantsiko da. ("Memoria" eranskina).

Memoria modu argi eta errazean idatzi beharko da, bere ulertzea erraztuz eta proiektuaren ulermena oztopatuko duten teknizismoak ekidinez, eta Oinarri hauetako 10. artikuluan zehazten diren irizpideei lotutako aspektuei zuzenean erreferentzia egin beharko dio,



proposamenak baloratuak izan daitezzen. Gehienez 8 orrialde izan ditzan gomendatzen da. Memoria teknikoa ezin izango da konpondu. Memoriako atal guztiak bete ez dituzten eskabideak, "Memoria" eranskina, baztertu egingo dira.

Onuradunak egindako ardurazko deklarazio guztien egiazkotasunaren gaineko arduraren hartzen du, eta baita aurkezten den gainontzeko dokumentazioaren gainekoa ere bai.

9. ARTIKULUA. ESKABIDEETAKO AKATSAK KONPONTZEA.

Eskabidea egiten den momentuan eskaera-inprimakia erantsi beharko da, Oinarri hauetan eskatzen den dokumentazioarekin batera.

Behin dokumentazio osoa berrikusita eskabidea behar bezala beteta ez dagoela egiaztatzen baldin bada, edo diruz lagun daitezkeen jardueretarako eskatutako dokumentazioa ez bada jasotzen, pertsona edo entitate eskatzaileari horren berri emango zaio, hamar egun baliodunetan akatsa konpondu edo beharrezko dokumentazioa aurkez dezan, adieraziz, gainera, jardun horiek betetzen ez baditu eskaeratik kanpo geldituko dela, beste inongo tramiterik gabe, horren inguruan erabakia ezarriz. Administrazioako dokumentazioa bakarrik zuzendu ahal da. Dokumentazio teknikoari dagokionean, Donostiako Sustapenak argibideak eskatu ahal izango ditu, egoki irizten badio.

Dokumentazioa Internet bidez edo zuzenean aurkeztu beharko da, eskabidea aurkezteko erabili zen bide bera erabiliz. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako egiaztariak.

Laguntzak ematea edo ukatzea Donostiako Sustapenak berariaz emandako erabaki bidez egingo da.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Eskaerak erregistro ordenaren arabera ebaluatu eta erabakiko dira, laguntza honetarako bideratu diren baliabide ekonomikoak agortu arte, Oinarri hauetako 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.



Oinarrien arabera aurkeztutako proiektu guztiak puntuazio baten arabera ebaluatuko dira, eta gehienez, 55 puntukoa izango da. Laguntza-eskabide hau onartzeko, aurkeztutako proiektuak, gutxienez, 35 puntu lortu beharko ditu.

Proiektuen ebaluazioa balorazio-irizpide hauen arabera egingo da:

1. Balorazio teknikoa	50
1.1 Proiektuaren diseinua eta garapena.	10
1.2. Aurkezteko digitalizaizo-proiektuaren koherentzia eta erakunde eskatzailearen egoera digitala.	25
1.3. Bideragarritasuna, proiektuaren inbertsioa ekonomia, gizarte eta ingurumen iraunkortasun-irizpideen arabera.	10
1.4 Proiektuak izan dezakeen eragina: kokapen lehiakorra.	5
2. Hiriarekin duen lotura:	5
Donostiako Sustapenak ezarritako lerro eta sektore estrategikoak	
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA, GUZTIRA	55

Diruz lagunduko diren ekintza edo jardueren irismena, eta bai diruz lagun daitezkeen gastuena ere, argi eta garbi zehaztuko da onuradunak jasoko duen bukaerako ebazpenean. Onuradunak hasiera batean diruz lagun zitezkeela aurreikusitako gastu batzuk kendu ahal izango ditu.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaeraren erregistro-datatik hasita. Ez dira epe horren baitan hartuko dokumentazio administratiboa konpontzeko epeak. Ezarritako epean laguntza emateko ebazpena ez emateak ez du esan nahiko laguntza eman denik.

Eskaeraren ebazpenaren momentuan, Donostiako Sustapenak eskabidearekin batera aurkeztu beharreko derrigorrezko dokumentazioa berrikusiko du. Eskabideari erants dakioken beste edozein dokumentazio, eta beharrezko ez dena Oinarri hauetan ebazteko, ez da laguntza emateko berrikusi beharko.

Laguntzak ematea edo ukatzea Donostiako Sustapenak berariaz emandako erabaki bidez egingo da.



Ebazpenak pertsona eskatzaileei jakinaraziko zaizkie eta argitaratu egingo dira onuradunen zerrendak.

Deialdi honi dagozkion notifikazioak bitarteko elektronikoz emango dira, eskabidean emandako helbide elektronikoa erabilita. Onuradunak Donostiako Sustapenarekin komunikatzeko bidea aldatu ahal izango du. Horretarako, idatzi bat aurkeztu beharko du Donostiako Sustapeneko Informaziorako Zerbitzu Zentraletan, Erregina Erregentea 8, Victoria Eugenia Antzokia, 20.0003 Donostia helbidean, deialdi honi dagozkion notifikazioak posta arruntez jasotzeko eskatuz. skaeran adierazitako enpresaren helbidea ez badator notifikazioentzako helbidearekin bat, adierazi egin beharko da zein den.

Emandako ebazpenarekin ados ez etorritz gero, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, ebazpena eman eta gehienez hilabeteko epean. Kasu horietan, Donostiako Sustapenak zehaztutakoaren arabera jokatu da, bi aldeak, dagokien kasuan, Donostia/San Sebastianeko Epaitegi eta Auzitegietako eskumenaren mende jarriko direlarik.

11. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastu gisa onartuko dira, oro har, inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jarduerari dagozkionak eta oinarri hauetan ezarritako epean egindakoak.

Diruz lagun daitezkeen gastuei DLLOko 31. artikulua aplikatuko zaie.

12. ARTIKULUA. PROGRAMAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAREN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINTZEA.

Laguntzak ordainketa bakar batean ordainduko dira, dokumentazio hau aurkeztu eta gero:

Administrazioko dokumentazioa:

- "Justifikazioa" eranskina.
- Foru Aldundiaren ziurtagiri eguneratua, zerga-betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, betebeharrak beteta dituela egiaztatzen duena.
- Donostiako Udaleko ziurtagiria, zeinaren bitartez udalarekin inongo zorrik ez duela ziurtatuko den, edo berariazko baimena ("Justifikazioa" eranskinean), Donostiako Sustapenak informazio hori zuzenean Donostiako Udaletik lor dezan.



- Egunera arte, helburu berbera betetzeko asmoz, beste entitate pribatu edo publikoei eskatu edo beroriek emandako gainontzeko laguntzen zinpeko deklarazioa ("Justifikazioa" eranskinean).
- Diru-laguntza jaso duten zerbitzu edo produktu kontratatuen fakturak.
- Egindako ordainketen frogagiriak.

Dokumentazio teknikoa:

- Enpresak egindako lanaren inguruko memoria teknikoa. Dokumentu horrek hornitzaileei kontrataturiko zerbitzuak gauzatu eta inplementatu direla ziurtatzeko besteko ebidentziak jaso beharko ditu (besteak beste: gastuen eta inbertsioen zerrenda, enpresaren posizionamenduan hobekuntza, salmentetan eta langileengan eragina izan duten jardunen kronograma, etab.). ("Azken Memoria" eranskina).

Laguntza hauen exekuzio-epea iragarki hau GAOean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 2018ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Diruz lagun daitezkeen gastuak justifikatzeko fakturek ere epe horren baitakoak izan beharko dute.

Justifikatzeko fakturek 2019ko otsailaren 28rako ordainduta egon beharko dute.

Justifikatzeko epea 2019ko otsailaren 28an bukatuko da.

Dokumentazioa Internet bidez edo zuzenean aurkeztu ahalko da, eskabidea aurkezteko erabili zen bide bera erabiliz. Ez dira onartuko posta elektronikoz jasotako egiaztagiriak.

Dokumentazioa ez bada aipaturiko epearen baitan aurkezten, laguntza ez onartutzat emango da.

Behin dokumentazio osoa aztertuta, jasotako zerbitzuak, osotasunean edo parte batean, ez badatoz bat onartutako jardunekin edo justifikatutako gastuen kontzeptuekin, laguntza osoa edo justifikatu gabeko jardunei dagokien parte proportzionala bertan behera geldituko dira.

13. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauek jasotzen dituzten onuradunek Diru-laguntzen Legearen 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte. Izaera orokorrez, berariaz ezarritako segidako betebeharrak dira bete beharko dituztenak:

- a) Ekarpena diruz lagundutako jarduerak burutzera bideratzea.



- b) Donostiako Sustapenak berariaz baimendutako kasuetan salbu, aurkezturiko proiektuetako baldintzak errespetatu eta betetzea.
- c) Diruz lagun daitezkeen gastuen justifikaziorako beharrezko dokumentazioa aurkeztea, ezarritako modu eta epeekin bat etorriz.
- d) Jasotako laguntzen aplikazioko justifikazio-dokumentuak gordetzea, frogatu edo ikuskatu ahal izango direlako, eta, edozein kasutan, aplikaziozko araudian ezarritako epean zehar.
- e) Proiektuaren baitan dauden jardueretako gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzea.
- f) Kontabilitateko liburuak modu egokian izatea, beharrezko den kasuetan.
- g) Gizarte-segurantzako betebeharretan eta zerga-betebeharretan egunean egotea.
- h) Donostiako Sustapenari jakinaraztea laguntzak emateko kontuan izandako edozein baldintzen (subjektiboak edo objektiboak) aldaketa.
- i) Donostiako Sustapenak eskatutako informazio guztia erraztea, emandako diru-laguntzei dagozkien funtzioak betetzeko.
- j) Donostiako Sustapenari jakinaraztea helburu berdinerako jasotako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo beste baliabide batzuk.
- k) Laguntza jaso duen proiektuan aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein inguruabarren berri ematea Donostiako Sustapenari.
- l) Dagokion kasuan Donostiako Sustapenarekin kolaboratzea, burutu ditzakeen finantza kontrolerako eta frogatzerako jardunetan, bere esku jarriz eskatutako dokumentazio edo informazio guztia.
- m) Laguntza honetako jarduerak burutzeko beharrezko diren lizentzia eta baimenak izatea.
- n) Oinarri hauetako 3 eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- o) Material, euskarri eta espazioetan Donostiako Udaletxearen, Donostiako Sustapenaren eta Donostia UP! 2018 planaren logotipoak eranstea.
- p) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikaziorako euskarrietan (webguneak, sare sozialak, e-mail bidalketak, megafonia, etab.), promozio eta hedapenerako materialen edizioa, hizkuntza antolaturiko jardunaldi eta ekitaldietan, eta abar.

Entitate eskatzaileek Donostiako Udaleko Euskara zerbitzuaren aholkularitza eskatu ahal izango dute testuak itzuli eta zuzentzeko (gehienez, 1.000 karaktereko itzulpenak hilean, eta 9.000 karaktereko zuzenketak), beti ere zerbitzuaren eskakizun eta baldintzak betetzen baldin badira.

14. ARTIKULUA. ITZULTZEA

Berariazko laguntza bakoitzaren kasuan Oinarri hauetako 1 eta 6. kapituluaren artean adierazten denaren kontrakoa esaten ez bada, onuradunak jasotako zenbatekoa itzuli



beharko du hurrengo kasuetako edozeinetan, eta baita diruaren interes legala ere - zenbatekoen ordainketa egin den momentutik aurrera:-

- Oinarri hauetan aurreikusten diren betebeharrak behin eta berriz eta modu larrian ez betetzea.
- Zenbatekoaren helburua justifikatzeko betebeharra ez betetzea, Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan, eta baita justifikazio nahikorik ez ematea ere.
- Onuradunaren jardueraren inguruan praktika daitezkeen frogapen edo ikuskaritzako jardunen aurrean erresistentzia, aitzakia, eragozpena edo ezezkoa erakustea, eta baita kontularitzako, erregistroko edo dokumentuen kontserbazioen inguruko betebeharrak ez betetzea ere, horren ondorioz ezin denean jasotako laguntzek sortutako enplegua, finantzaturiko jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo helburu berdinerako dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen aldiberekotasuna ziurtatu, edozein Administrazio edo erakunde publiko edo pribatutik jasoak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoetakoak.
- Jarduera gainfinantzatua dagoenean, gastatu ez den zenbatekoa edo gainfinantzatu den.

Orain deskribatuko diren baldintzetan egingo da zenbatekoaren itzultzea, Donostiako Sustapenak Oinarri hauetan ezarritako baldintzetako bat ematen dela ziurtatutakoan eta onuradunari jakinarazitakoan:

Itzultzea laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean egin beharko da, Donostiako Sustapenak, burofax bidez, onuradunari artikulu honetan aurreikusitako itzultze-kausetako baten bat jakinarazten dion egunetik hasi.

Aurrez aipaturiko itzultze-kausaren bat gertatzen baldin bada, onuradunak galdu egingo du, bere kasuan, kobratu gabe gelditi litekeen kopururik kobratzeko eskubidea.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

15/1999 Lege Organikoko 5.1. artikuluan ezartzen denaren arabera, Datu pertsonalak babesteari buruzkoa (IPDB), Oinarri honetako laguntza arauak eskatzen dituztenei jakinarazten zaie, eskabide honen bitartez ematen dituzten eta, behin laguntzak ematen direnean, eskabide horien tramitazio edo/eta kudeaketan errazten dituzten izaera pertsonaleko datuak DONOSTIAKO UDALAREN titulartasunekoak den eta DONOSTIAKO



SUSTAPENA SA sozietateak kudeatzen duen fitxategi batera edo hainbat fitxategira erantsiko direla. Alde batetik, enplegu-bilaketarako politika aktibo bat kudeatzeko erabiliko dira, eta, bestalde, DONOSTIAKO SUSTAPENA SA sozietatearen zerbitzu eta jarduerak ezagutzera emateko ere bai, eskatzaileak, dagokion eskabidean, hala baimentzen duenetan.

Berariaz kontrakoa adierazten den kasuetan salbu, eskatzen diren datuak beharrezkoak dira eskabideei bide emateko. Datu pertsonalen titularrak emandako datuen egiazkotasunaren eta zehaztasunaren ardura du.

Eskatzaileak hirugarrenen datu pertsonalak jakinarazten baditu, eskatzaile horrek, eragindako hirugarren horien baimena izan beharko du aldez aurretik datu horiek jakinarazteko.

Jakinarazten dizugu datu pertsonalak enplegua eskaintzen duten entitateei eman ahal izango zaizkiela, eta baita, beharrezko denetan, entitate nazional edo/eta europarrei ere bai, kudeaketan DONOSTIAKO SUSTAPENA SA sozietatearekin elkarlanean dabiltzanei edo jarduerak finantzatzen dituztenei.

Halaber, eskatutako laguntzak edo zerbitzuak emateak onuradunen identifikazio-datuak eta jasotako laguntzaren zenbatekoa DONOSTIAKO SUSTAPENA SAREN webgunean argitaratu ahal izango direla jakinarazten dugu, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo, beharrezko suertatuz gero, dagokion aldizkari ofizialean argitaratzearekin batera.

Interesdunek beren datu pertsonalen sarbide-, zuzentze-, deuseztapen-eta kontrakotasun eskubideak erabili ahal izango dituzte, DONOSTIAKO UDALAREN UdallInfo Zerbitzura idatzia igorrita, Igentea kalea, 1 KP 20003 Donostia-San Sebastián helbidera, NANaren kopia erantsiz, beren identitatea argi gera dadin.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez emango dira aditzera eta berauek argitaratu eta hurrengo egunean egongo dira indarrean.

Eskabideak aurkezteak interesdunek oinarriak guztiz onartzen dituztela esan nahi du.

Erantzukizunetik salbuestea.



Onuraduna izango da laguntza honen helburu den jardueraren aurreko edo ondorengo jardunek, eta baita jardunak berak zuzenean, eragin ditzakeen kalte pertsonalen edo/eta materialen erantzule bakarra. Horrela, Donostiako Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Ematen diren laguntzek Oinarri hauetan jasotzen diren araei jarraituko diete, eta horietan aurreikusten ez den kasuetan, DLLOan eta bere garapenerako Araudia onartu zuen 887/2006 Errege Dekretuan, uztailearen 21ekoan, jasotako arauak aplikatuko dira, DLLO horren baitako kudeaketa-printzipioei dagokienean eta 20. artikuluan erreferentzia egiten zaion informazioari dagokionean eskusiboki, bertako bigarren paragrafoko 3.2 artikuluan xedatzen denaren arabera.

Beste kasu batean, adierazitako DLLOa eta Araudia Oinarri hauek legezko testu horiei berariazko oharra egiten dizkietenean aplikatuko dira soilik.

Donostian, 2018ko ekainaren 27an

Ernesto Gasco

Donostiako Sustapena SAko lehendakariordea